




:—: VI Urtea 1924'ko Joñaila 64 Zenbakia :—:

Jaungoikoaren 1.º Agindua, Adorazioa

Dominum Deum tuum adorabis.

(Mat. IV-10.)

Zure Jaungoiko Jauna adoratuko dezu.



ADORAZIOA (1) da Jaungoikoari gure Jauna dalako egiten diogun agurketa berezia, gure jauntzat bera ezagutu ta artuz.

Agurketa artzen degu erderazko *culto* itzaz ta esan nai du norpaiti itzala ekartzea eta aintzat artzen degulako bere begiramenduz zerpait goragafi egitea, gu makurtuz, beratzuz, edo.

Agertzen zaizu Aita Santua edo Obispo jauna ta bereala jafirik zeundena zutitzen zera, belaunikatzen zera, ta muñ egiten diezu batari oñetan, besteari eskuan. Egiten dituzun oiek guziak agurketak dira. Agur egiten diozu bere begiramenduz zutitzean, baño ori gutxi irudi zaizu ta uñena belaunikatzen zera ta azkenean berenganako zure lotsak muñ egitera zeramazki.

Iru gauza oiekin agur egin diezu Aita Santuari edo Obispo jaunari. Ori bera egiten dezu Ama-Birjiñaren edo santuen baten iduria (imajiña) auferatzen zaizunean edo aien aũean zoazenean. Oiei aguf egiten diezu, makur-

(1) Euskaldun zafak *jauretsi* esaten zuten *adoratu* esateko ta ortik *jaurespena* izango litzeke egokiena *adorazioa* euskera garbiz esatekoz.

tzen zera, beratzen zera oien afean. Zure begiramentuzko agerbide guzi oiek *agurketak* deituko ditugu.

Baño orain Jaungoikoaren afean belaunikatzen zera. Jaunari edozein giaz, edozein bidez nai diozu agur egin. Jaungoikoari dagokion eta egiten diozun agurtze edo agurketa ofi deitzen diogu *adorazioa*; Jaungoikoa jauntzat ezagutzen dezulako agerbidea dezu ori. Bera bakafik adoratu dezakezu; beste guziei *agur egiten* diezu.

Agurketa izan diteke geroztik

a) *Adoraziozkoa*: Jaungoikoari bere bikaintasun eta ontasun berdingabekoaz zor zaiona. *Adorazio* au ematen zaie Jaungoikoari, Irutasun (Trinidad) guziz santuari, Jesukristori ta Aldareko Jaunari, ta Jesukristo'ri dagokionaz ta onen oroigafi diralako Jesus'en Izen santuari, gurutziltzatuaren iduriari, gurutze santuari ta Jesus'en nekagafi izan ziran, buruko arantzari, iltzeai, ta astamakilari.

b) *Gain-gañekoa* Ama-Birjiñari Jaungoikoaren Ama dalako zor zaiona. Agurketa berezi ontaz adirazten degu Maria guziz deunak santu guzien gain duen bikaintasuna ta gure bereganako menpetasuna.

d) *Santutasunezkoa* santu edo deunei beren zeruko bikaintasunaz ta gure berenganako menpetasuna adierazteko ematen zaiena.

e) *Berezkoa*: bere baitako ontasun eta bikaintasunaz ematen zaiena; Jaungoikoari, Ama-Birjiña ta santuei ematen zaiena.

g) *Besteazkoa*: bere agiriko iduriz edo ordektasunaz, beste norpaiten iduri, oroigari edo ordeko diralako gauzen batzuei, ematen zaiena, santuen idurie eta gorpuzkiei-ta.

i) *Eliz-legezkoa*: Elizak jafirik daukena ta Elizak agindurik dauken eran eliz-gizonen batek egiten dituan elizkizunak.

j) *Lagunartekoa*: etxeko edo efikoak baturik egiten dutena.

k) *Bakarkakoa*: norberak gogo duenean egiten duana.

l) *Bafuko edo barengoa*: bafutik edo bafendik bakafik Jaungoikoari ekartzen zaion lotsa, izaten zaion begiramentua edo erakusten zaion gogo ona. Au ematen zaio lengotan erakutsi degun bezelako sinismen, itxaropen edo esperantzaz eta maitetasunaz.

m) *Agirikoa edo kanpokoa*: agirian egiten dan zerbaitez Jaungoikoari egiten zaion omena edo goragafia.

Jaungoikoari Agurketa (culto) ¿zor al diogu?

Gure ezaguerak berez eskatzen du agurketa ori.

Jaungoikoa gu ezerezetik atera giñuzen Egilea ta ondorean gure Ongile azkengabea dala adirazten digu. Argitasun ofek berak afean jartzen digu Jaungoikoa, inork izan dezazken alderdi on guziaz beterik.

¿Nor ezta, ba, ori entzutean Jaun ofen afean auzpez eroriko? ¿Nork eztu bere Jaunetako ezagutuko? Gure ezaguerak eta esker onak eskatzen diguten gauza da beintzat.

Auxe da Migel Goiaingeruak lagun afoai oju egin ziena: ¿Nor Jaungoikoa añakorik?



Mujika'r Mateo Iruña'ko Gotzai

(Obispo) jaun guztiz Agurgarria.



TSAILAREN 24'an egin digu Iruña'n bere sarera bikaña gure Gotzai beriak.

«Gure erdian Napar bat geiago besterik ez dala irudi zizaiola»—zion sareran; Napar auei irudi zaigu beriz oi ez bezelako Aita, amets egiten gendun baño Artzai ohea ta inork uste zuan baño zorion aundiagoa Zurekin eldu zaigula.

Argatik egun ortan zure begietara ziran napar guziak pozez gañez egiñik ikusiko zifuzen.

Bere etoñeraren aurretik biali zigun gure Gotzai maiteak ZERUKO ARGIA'rentzat eskatu gifiñion bedeinkazioa. Ona bere itzak:

Aita baten maitetasunaz bedeinkatzen dizutegu eskaerako al-dizkingi, bere izen eder ZERUKO ARGIA goragañi egiten duan ori.

Donosti'tik 1924'eko Otsailaren 21'ean,

† IRUÑA'KO GOTZAIA

Elizarekin «otoitz egin zagun gure Obispo Mateo'ren alde: Zure azkartasunaz beterik bego tente, Jauna, Zure izenaren goratasunaz zeruko jakia guri emanez!»

¡Urte askoz, Jauna, urte askoz!

Jaungoiko berak agintzen digu.

Jaungoikoak auxe zion 1.º Aginduan: Ni naiz zure Jaungoiko Jauna: ni beste Jaungoikorik eztezu izango.» Esan nai du: zure Jaungoikotzat adoratuko nauzu ta ni beste Jaungoikorik eztezu adoratuko.

Au ber-bera da Jesus'ek etsaiari esan ziona: «zure Jaungoiko Jauna adoratuko dezu ta aren mirabe bakafik izango zera.»

Argatik dio B. K. Ikasbideak: *Zertara beartzen gaitu... Jaungoikoak bere lenengo aginduan?*— E. Berari bakafik gorputz eta animako lots-itzalik aundienaz agur egitera eta bere mirabe izatera beartzen gaitu Jaungoikoak bere lenengo aginduan.

Exodo liburu santuan ikusten degunaz Jaungoiko berak erakutsi zion Moises'i nolako Jauretzea edo Tabernakuloa, ta aldarea, zer eskari ta zer eskeintzak egin. Berafiek sortu zuan izan nai zuan Apaizgoa bere eginkizun guziekin.

Jesus berak eman zion beñiz Elizari Lege Befian izan bear gendun eskeingafia, azken aparian, Apaizgo befia ere berak sortuz.

Onela adirazi digu nai duala gure agurketa bai biotzezko edo barukoa baño baita ere gorputzekoa.

Intza'r D. An. O. M. Cap.

EZTI-TANTOAK



Gure bizitza osoa,

RAKURLE maite ori, naigabez ala oñazez josia daukagu; jaiotzetik il-obiraño ez degu begien afean ia ori besterik ikusten: eta alaz guziaz ere, egi auxe, egi galanta izanik, ez degula aditzen eta bear bezela ezagutzen ziñez esan genezake. Egi orixe maiz-maiz ausnartuko ba-gendu eta gure zaiñetako odolarekin bat egingo ba'gendu, uste al-dezu oñazeak eta naigabeak iñoiz itoko giñuztekela? Orduan bai-datorzkiguen

zoritxar guzien bafen-bafenean eztizko mami gozo-gozoa beti aufkituko gendukela! Aien azal gogof-minkatzaren azpian, ezti atsegiña bai dago.

Gogoketa auek buruan

narabilzkila, gai ontaz zerbait, laburki bederik, idaztea atsegin izango zitzaitzula otu zitzaidan, bai, azaldu nai dizkitzudan egi atsegikor auek safi

begien aúfean guziok jafi bear genituzkelako, baita euskeraz gutxitan gai ori bear litzaken zabaltasunez eta begirunez erabili oi-dala ikusten dedalako ere. Eta, irakurle, zuri zer atsegin izan, ura idatzi zai-gaudenok, ez degu besterik bear lanari eusteko.

Argatik,

«Ezti-tantoak» antolatzen, erleak lorez-lore berea egiteko ainbat, ekingo det; naigabe-pean ba-zaude tanto gozo aiek zure biotza osoro gozatu ta atsegin-du dezaten, eta ez-ba zaude, befiz, zaudekenerako gertu ta antolatu dezazun.

Izan ere,

gezufa dirudi, irakufle, geienoi gertatzen zaiguna, baña alaxen da; txiki-txikitandik zoritxaf-itsasoko ur gazia edaten asi oi-gera, eta edanaren edanaz noiz-baño-noiz minkatzagoa deritzagu. Eta ez da ori okefena, okefena aren minkaztasuna kendu nairik, egizko atsegiñetara jo beafean, ezti-antza besterik ez duten gezufezko ezti-gaietara safi askotan jo oi-degula, eroen gisa, ta nai-ta-naiez gertatu bear zaiguna gertatu oi-zaigula; ez degula iñoiz ezbear eta zoritxafei bekoki aroz eup-egiten eun urte munduan jota ere.

Ori irixteko,

aufez-aufetik zoritxafa, oñazea, bizitza argal onetan ditugun gañerako ez-bear guzi-guziak nondik datorzkigun, laburkiro bada ere ikusi dezagun.

Zorionerako

guziok Jaungoikoak egin ginduan noski. Jaungoiko gure Jauna neufi gabe ona on-utsa da-ta, gure ona, gure zorientasuna besterik ez zezaken nai. Zeruan bezela lufean ere, zorion ikusi nai gaitu. Zergatik, orduan, mundu onetan nekepean jafi gaituan, diozu? Ara: gure Erlijioak, Eliza Ama Santak bakafik zure galdera oni erantzupen egokia, zuzena eman lezaioke. Beren adimenaren argiaz bakafik erantzupen bila, an or, ibili diran jakintsu guziak, korapiño ori askatu beafean, ez dute naspiñagotu baizik egin; siñismenaren indafez bakañ-bakafik askatu leike ta. Atsegindegian, zorionaren egoazpian, jafi zituan Jaunak gure lenengo gurasoak; gizonak, pekatuta jo baño lenago, nekea ta zoritxafa zer ziran ez zekian; pekatuatu ondoren nabaitu du bere aragian oñazearen ezten zorotza. Beraz, ez da zoritxafa pekatuaren ondoren bat baizik. Itzalak, kerizpeak gorputzari dañaion bezela, nekeak eta atsekabeak pekatuari jafaitu oi dio. Izan ere, pekatuak munduan naigabeari atea iriki zion, eta bertan pekatua bizi dan arte, gure artean ere iraungo du naigabeak, esate baterako, munduaren azken arte.

Euki, bada, beti

begien aúfean egi oiek, eta ez esan Jaungoikoarena danik Berea ez dan gauzik; ez zan pekatua beste gauza guziekin batean Jaungoikoaren eskuetatik atera. Ofa zergatik, atsekabea ta gañerako zoritxafak Jaungoikoak egin dituanik ez genezaken egitan esan. Gizonak nai ta etofi zan pekatua mundura, ta pekatua dala berak bere burua jafi zuen oraingo gure egonera negaftsu onetan; eta gu guziok gizon pekatari afen semeak geralako, bera erori zan egokera negařgafi artan arkitzen gera.

Aberats arkitzen diran gurasoetatik jaiotzen diran semeak, aberatsak dira noski, guraso beartsuetatik jaio oi diranak beartsuak diran eran. Gure

gurasoak aberatsak zirala, pekaturatu baño len, jaio izan ba'giña, gu ere aberatsak, pekaturik gabe, izango giñan, ta aien lenengo egokera aberats eta zorionsuan biziko giñan; baña zoritxarez, aiek beaftasunik gogofenera erori ondoan jaioak gera, eta aien egokera ufi eta neketsuan nai ta naiez bi-zi beafak, guraso beartsuetatik jatofia duten ume gaxoen eran.

Beraz,

irakurle maitea, Jaungoikoak zorionsu izateko egin giñuzan; mundu onetan zoriontasunik ez ba-dakusgu (ikusten ez ba-degu) ez da ori, ziñez, gure Jaungoiko onaren efuz.

Pekatua, pekatariak, deabru zirikatzaile gaiztoa, eta gu gerok pekatar-riak geran aldetik..... oña or munduan dakuskigun zoritxar, oñaze, naigabe, negar guzien iturburua.


Noletan esaten da, orduan, Jaunaren eskutik datofzkigula gure bizitza-ko bidean sortzen zaizkigun neke ta zoritxar oro? galdetuko didazu noski. Zuzen zaude, irakurle aiskidea; galdera labur ofetan egi aundi bat bildu de-zu: baña ez du nik orain arte esandako guzia jota zilipurdika botatzeko ain-bait indaf, zuk, agian, ala uste afen

Egia da

diozuna; *nolabait* ere esan leike, gezuñik esan gabe, zoritxar eta naigabe oro Jaungoikoak bialtzen dizkigula, ta alaz ere nik esandako guzia egi gar-bia da: nola askatu korapilo ori? Beste bein beafko, gaurko au luxeskoa data. Ordurafte, bada, irakurle.

JAUREGI'TAR LUIS






Jesukristoren Aperi Santua



REGINA CÆLI




(Donostia'r J. And. Abak ereskidetua)

Re - gi - na cœ - li le - ta - re al - le - lu - ia:



Qui - a - quem me - ru - is - ti por - ta - re al - le - lu - ia



Re - su - rre - xit si - cut - di - xit al - le - lu - ia:



O - ra - pro - no - bis De - um, al - le - lu - ia.




GAURKO NESKATXAK

Iruña'tik 1924 Joraila'ren 1'an

OLABIDE'TAR MARGARITA

Ernani'n.



ESKATX on ori: Ez naiz afitu, ez, zure azkenekoa artu detanian, bañon bai asko poztu naizela. Jaungoikoari esker mila eman dizkiot monja joateko ain gogo bizia eman dizulako.

¡Nolako aundiya izango dan zure poza! Eztakizu ondo oraindik, Margarita, ez, baño ikusiko dezu, zu izango zera guztiz zorionekoa. Siñistu zadazu.

Ta gañera zuk diozunez «gaur ikusten diran gauzak ikusita.....» ta egiya diozu.

Afitua gelditzen naiz batzutan. Begira orain ama-bost egun esan didatena.

Napafoko efi aundi batean, ba emen zebilén neskatz gazte bat, efi ez efi araño etofi zana, ta «*kupletista*» edo alako bat omen zan. Egunero zebilén jendien afean bere kanta edo eresi zikiñak erakusten ta gañera lotsagañizko jazkeraz jantzia; baño ez uste nola naikoa, Margarita, ez, oso lotsagabe azaltzen emen zan jendien afean. Baño afitu zaitez orain, bere etxian, teatrorra eramaten zituan jantzien artean, arkitu zizkioten bi liburu: «*Ama Birjiñaren egiazko debozioaz*» ta «*San Jose'ren zazpi igandak*». Ezta ori gauza izugaña, nere Margarita maitia?

Baño ez ainbeste afitu, ez, olakoak diralako gaurko neskatz asko, alderdi guzietan.

Otoitz asko egin, egunero Komunio Santua artu, San Jose'ri kandela piztu, Ama Birjiñari argizariya jañi, maiz konfesatu ta gero.....? Gero, egunero azaltzen diran moda beñai lagundu, kolkua oso zabalik ibili, beso afeak agirian erakutsi, ta gaurko jazkera zikiñakin etsayari edo deabruari lagundu besteen animak galtzeko. Ori da gaurko neskatz askoen lana. Baño pañ egiteko gogo ematen du. Ez, ez, gaizki esan det, pañ ez baño negañ egitekoa.

Zer balio dute neskatz oyen otoitzak, neskatz oyen Komunioak, Jaungoikoari kandela bat, ta etsayari beste bat piztutzen badiote? ¡Ez ditu nola-naiko pañak egiten deabruak neskatz oyek elizan, santu guztien afean, be-launiko ikusten dituanian.....!

Oiek guziak ikusita, obe dezu, Margarita, obe dezu mila aldiz, guztiak

utzita konbentu batean zere burua sartzen badezu pake-pakean Jainkoakin, mundu ontan bizi bear degun urte gutxiak, bizitzeko.

Nik beneipen otoitz egiten det zutzat, zorionekoa izan zaitezen ta nere ustez zuk ere ez nauzula zure otoitzetan atzenduko. Ori nai nuke.

Agindu beti zure mende dagoen

Donosti'ar Gabriel A'ri.

O. M. CAP.

MARI KRUTX «MATE ZATUT»

(Gaztetxoentzat)



IVOTZ alaiek Jaungoikuak maite ditula esaten oi zuan Neritaf Felipe Santubak. Ori egiya izanik beti alai egoten diran umetxoen biotzak Jaungoikuak ¿maitatuko eztitu ba?...eta umetxoen artean ¿zenbat maite ote du geo *Martintxurieneko Mari Krutx?*..

Nor degu, ordea, *Mari Krutx?*..

Martintxurieneko etxekoandre gazteak maite-maite dun alabatxoa. Lorilan etxe ertzeko loretegi-an biltzen ditun afosak eta klabinak bañon edefagoa zaio *Kontxesi'ri* Jaungoikuak eman dion aingerutxoa.

Lorepil bikain usaiduna bere gelan daukan Ama-Birjiñaren irudiaren aufera daramanian, amaika aldiz lore edef oyeke ikusita esaten du: «loretxo oyeke bezin polita zera, *Mari Krutx*... zure arpegi edefari dagokion erako biotzatxoa daukazu, bai, nere mate-kufun ofek.»

Goizian, ez dio, ez, amak bi aldiz esan bear izaten jaikitzeke; ezta're otoitz egiteko. «Mari Krutx, jeiki ordua da geo» Amak esan orduko, «bai, amatxo» erantzun ta azkar jeikitzen, jantzitzen ta iru Agur Mariak efezatzeke belaunikatzen da nexka txikiya.

«Lo egin aldezu, amatxo?» galdetzia izaten da Mari Krutxen lenengo egitekoa eta gero amari kufunkerki pranko egin ondorean ez uste izan eskolara joan ordu bitartian alperkeriyan egoten dala, ez.

Badaki, bai, sua piztutzen, sukalde-tresnak garbitzen, autsa kendu ta gelak txukun jartzen.

Gosaldu ondorean ikastetxera joaten da. An ixilik egoten badaki; ofegatik irakurtzen pixka badare ikasi du, biatzak tintarekin zikindu gabe idazten ere bai, batez ere ofatzari eragiñaz esku lanetan auferatzen ari da gogotik.

Mari Krutxen lagunak izango baziñateke, Jesus'ek aingerutxo bat zuen lagun izateko biali dizuela esan bearko zenduteke.

Badakit nik zuek askotan gurasoei, aitonari, amonari, anai-afeba zafagokoei zer erantzuten diezuen zerbaít agintzen dizutenian: buruba makurtu, zearka begiratu eta *eztet nail* esan: eta bi edo iru bider amatxok esan ta agindu ondorian, zipozkeriyaz mutur jari-ta egin...

Mari Krutxek badaki zafagokoen esanak egiten dituzten nexkatilek Jesus Aurtxoak oso mañe diñula. Amak erakutsi diolako baita're badaki neskatila zipote-gixatxafak etsai mutuf beltzak bere adiskide diñula: ofengatik amaren esanak badakizki, bai, txintxo egiten.

Ikusten *Mari Krutx*, ofafetxoa ondoan daukala elizan belauniko?...

Sagrarioaren aufian belauniko jafi eta «mañe zafut» Jesus on-onari esan gabe eztaki bere basefi aldera itzultzen, amak kale-aldera bialtzen duanian. ¿Egingo eztitu ba ongi amaren esanak Jesus mañe dun nexkatikiak?

Martintxurieneko Kontxexik garbi jantzitzen du beti Jaunak eman dion aingerutxo: ezta *dotorea Mari Krutxen* jantziya, bai ordea garbiya. Ama Birjiñaren mendean sortu zanetik jafia daukan alabatxoa *Kontxexikaz*

talak eta kolkorik agerian ibili?... Esaten diote, bai, inguruko etxeoandreak udaran neguan bañon arintxuago jantzi bear dirala umiak; bañon *Kontxexik* erantzuten die beti:

«Nexka modesti gabiak

Dirudite aberiak»

eta bere alabatxoari azi ala gonak luzatzen dizkionian muxu emanaz esaten ere dio: *Mari Krutx* maitia:

«Neska modesti gabiak

Dirudite aberiak.»

Mari Krutx: Aunditzian ere Sagrarioaren aufera joan ta Jesus on-onari mañe zafut esango diozu?... Bai?... Jesussek ere erantzungo dizu ba: *Mari Krutx*, Nik ere mañe zafut.

OYARTZUNA O. M. Cap.



¡AMATXO NEREA!

Zorionik ez, kezketan dago
negafez Ama tristia:
ume gaxoa ufundu da ta
iltzera doa semia.
Nabaitu naye bidian dauka
bere begia josia...
Gero malkoen lauso beroaz
ilundu zayo begia.

Egazitxoak maitatutzen du
txit anitz bere abia ;
erle lankoyak billatutzen du
goizian goizik loria...
Itsas ofatzak ipa aldea...
Afayak befiz urpia...
Olaxen maite zuen Ama onek
Semetxo maitagaria.

Gurutze pian afas auldua
doa Jaun kupigaría,
bere atzetik beriz negafez
Ama bat oso lafia...
Gurutziltzatzen ari dirade
gurutz gañian Semia...
Etzazutela befiz samindu
bere bafengo zauria.

Ura oñaze neke lafia
mendi aldera jotzian,
ura negafa Mariyarena
Jesus erori zanian...
Jaungoiko bera biluxi dute
mundu guztiañ aufian...
Ama ez igo geituko da ta
oñaza zure barnian.

¡Ay! nork lezazke zure malkoak
bildu lilitxo baruan!
¡Oi! banezazke denak iduki
ufezko kopa batian!...
Sendakaj ori edatu Ama
obendari biotzian,
eta íañio bat ixuri íafen!
nere biotzain barnian.

Minberatua dauka biotza
begia befiz bustia...
oñaze gogor samin-samiñez
gogua dauka autsia:
Indarik gabe gelditu da ta
gurutz ondoan jafia...
Obendariyak etzazutela
befitu bere zauria.

Emakumea ta irakurgaiak (1)

(bukaera)



Ondorenak

ENBIZITIK zabaltzeko lan onek itz-bide asko eman zuan ondorenak izaten belaxe izan zituan eta. *Dépêche*'en saltzale batek *La Croix*'ena topatu zuan ta ukabilak erakutsiaz esan zion: Dolofa, zuk lu-joazten didazu, lenago 600 *Dépêche* saltzen nituan ta orain 240 doi-doi.

Laxter xamar *Dépêche* berak aitoftu zuan Tolosa'n bakarik 1800 arpide edo suskrizio galdu zituala. Ta okefagoa dana ufengo auteskunde edo elezioetan

(1) Azkeneko ilabetean «Tolosa'ko zabaltzea» izena zeraman sailak izen au bera bear zuan eraman, sail afen bukaera da ba au.

bere gogoko *konzejal* ta diputadu-gai askok bufuka galdu zuten. ¿Nola ez ajolik izan?

Egan batean agian ondamendiaren zauri ta samintasuna zeramaten bi jaun-ek *La Croix*'en banatzale bat itsumustuan topatu ta auxe esan zioten: ¿Zer, zu al zera astakaikuen izpafingia (periodikua) saltzen dezuna?

—Bai, jaunak, ausardiz erantzun zuen andreak ta gero, maltzurkeriz: Ain zu-zen, zuentzat bi gelditzen zaizkit.

Onen besteko ausardi, sinismen, iraupenez ta on egiteagatik bakañik egin-dako zabaltze-lanak ondoren ari-gafiak nai ta naiez izan bea.

Biotz aundiko animak emen ikasi dezakete.

Au Tolosa'n (Prantzi'koan); zer eliteke egin gure efietan?

(Cultre) Arbelaiz O. M. Cap.

SINISMEN-ZABALTZEAZ

(Misioaz)

Sinismen-zabaltzea zer dan.

INISMEN-zabaltzea Jesukristo gure Jaunak, zeruetara igo baño lentxeago bere jafaileai esana egitea da. *Euntes in mundum universum praedicate Evangelium omni creaturae* (Marc. XVI,15); lufalde guztietara joan zaitezte eta *Ebanjelioa* irazaki guztiai adierazi ezaiezute.» Sinismena zabalduaz, *misio-en* bidez, sinisgabe efukafiai sinismen-argia eraman, eta oke-fak arturik bizi diran gizagaxoai Jesukristok bere Elizari era-kutsitako egi bikañ-bikañak erakutsi nai zaizkie; lufbira guz-tian bafeaturik bizi diran gizon guzti-guztiaz Jesus Artzai Onaren ardurapean biziko dan artalde bakañ bat egin nai da.

Sinismena zabaltzen lan egin beara.

Kristau guztiok sinismena zabaltzen lan egin beafean gaude eta ofetara bide askoz beartuak gera. Bide oietan lenengoa, Jesukristo gure Jaunak nai izatea, da. Ara: Jesukristo gure Jauna, bere luf ontako eginkizuna beteta, bere ikasleengandik aldentzerakoan, bere jafaileak Galileako mendigain ba-tean biltzen ditu eta bere inguruan baturik dakusan artaldetxoari onela itz egiten dio:» Zuen buru gañetako goi urdin, zabal, azkengabe ori eta zuen oñetan alde guztietara zabaltzen dan lufalde aundiori ikusten al dituzute? Bada ni zeru-luf oien Jaun eta Jabe naiz eta gauza guztiak nere eskupean daude. Nere eskubide au zuei ematen dizutet; zoazte bada lufaren alde guz-tiera eta nik zuei erakutsitako egi guztiak gizon guzi-guziai erakutsi ezaz-kiezute». Eta Jesukristok Elizari bere asieran esan ziozkan itz auek garai

guztietako kristau guztiai bifresaten dizkie eta bere agindu ori ondo bete arte, bere erakutsi berdingabeak gizon guztien adimenak argitu arte ez da ixilduko.

Jesukristo gure Jaunak egikizun au ez zien *Apostoloai* eta beren ondo-rengoai bakafik ezafi, baizik kristau guztiai bada, guztiai berdin-berdin itz egin zien. Ofegatik Jesukristoren jafaile izatea aintzakotzat badaukagu bere jainkozko agindua bete beař degu, batez ere gaur egunean agindu ori betetzea beař-beařezkoa data.

Zio batzuek.

Egiz, guztiok *misiolari* arduratsuak izateko Jesukristok agintzea naikoa izan beař litzake; baño ofetaratu gaitzaketen beste gauza batzuek badira: maitetasuna, gerekoitasun ona eta *misio* aldezko lanetan atzera ez gelditzeko leiatasun ona.

Maitetasuna. Sinisgabetasun-ilunpetan eta sinismen okerař arturik bizi diranak gu bezelaxe, zeruratu beařeko gogo (anima) bat badute; Jesukristok bere odol bikaña oiengatik gugatik bezelaxe ixuri zuan. Eta gizagaxo oieta-ko asko-askoen zeruratzeta gure baitan dago eta guk laguntzen ezpadiegu guztiak beti-betiko galduko dira. Bada zerura joango badira Jesukristo eta berak erakutsitako egiak sinistea beařezkoa zaie; eta sinisteko norbaitek erakutsi beař die; eta erakusteko guk, Jainkoaren efukitasunaz egiazko sinismena degun guzti-guztiok lan egitea beař-beařezkoa da.

Gerekoitasun ona. Sinismena zabaltzen, *misioen* alde lan egitetik datorkigun ona ez litzake gure buruak jainkozko eginkizun onez arduratzeko ziorik, zergatirik txikiena izan beař. Santu batek «gogo (anima) bat zeruratzten duanak berea gorderik dauka» esan du. Eta gogo bati ezezik ezin zenbatu aĩĩ gogoi (animai) zeruratzen lagundu dienak bere zeruratzeta nola uste ez dezake? Ziñez lagun askoi zeruratzen lagundu dienak goietan, Jainkoaren aufean beraz ardura duten zaindari asko ditu. Gañera zenbat eta maitetasun eta ardura geiagoz sinisgabeak bide oneratzen lan egiten degun ainbat eta gure Jaun-maitasuna eta deuntasuna aundiago izahgo dira.

Leiatasun ona. Euskaldunak egiazko sinismena zabaltzeko beste iñork baño lan geiago egiten, lan onetan guztien aufetik joaten arduratu beař degu. Aspaldi-aspalditik asita gu arteko euskaldunak egiazko sinismena, Jesukristoren *Eliza* zabaltzen zenbat lan ez ote dute egin. *Mundu* guztiaren jira-biran Gurutze Deuna lenengo eraman zuten itxas-gizon bika-bikain aiek euskaldunak ziran; sinismengabeai sinismena eramatera joanda eguraldeko ugartetxo batean il zan eta orain sinismen-zabaltzaile, *misiolari* guztien Zaindari dan Xabier Deuna Napařoko semea, euskalduna zan eta Prantziskaf Martin Deuna eta Beřio-otxoar Balendin zoronduna sinismen-zabaltzaile arduratsuak euskaldunak ziran: lenengoa Gipuzkoara eta bigafena Bizkaitafa; eta beren sortefitik ufuti, neke gořiak ikusiaz, Jesukristoren *Ebanjelioa* sinisgabe gizagaxoai erakusten dabiltzan asko eta asko euskaldunak dira. Euskal-efia Eliz Ama Deunari *misiolari* geiena ematen eta *misio* en onez lan egiten lenengoa da. Beste eři asko sinismen-zabaltze onezko lanetan asko auferatzen ari dira eta gu, euskaldunok zorionez Jesus Artzai Onaren artaldeko mordoxkarik edefena geranok, ez degu atzera gelditu beař, guztien

aufetik joan beaf degu. Oñela-Jesus Biotza atseginduko degu eta gure sinis-
mena eta elizkoitasuna gero ta sendoago ta aundiago izango da. (L.J. A.)

Ataundar Bon. a'k O. M. Cap. (eusk.)

XXVII'g EUKARISTI-BATZARA



OLANDA'ko katolikoak pozik daude.

Emendik ilabete batzuetara, inora joan gabe, beren etxean ta be-
ren begiakin ikusiko dute XXVII'g. Eukaristi-Batzara. Amsterdam'en
ta Uztailaren 22'g. egunetik 27'raño Batzar onek bilduko ditu mundu
guztiko katolikoak, Gotzai, Artzobispo ta Kardenal asko, Van Rossum, Aita San-
tuaren Ordezkoaren inguruan. Holanda'ko katolikoak pozik daude ta ondo ira-
bazia daukate atsegin ori; protestantien artean Elizaren alde egin duten lan ede-
fak sari ori ondo merezia dauka.

Oraindik gutxi, baño bikañak.

Holanda'k 7.000.000 biztanle edo habitante ditu ta geyenak protestanteak di-
ra eñe ta gobernutik asi ta. Katolikoak 2.000.000 dira gutxi gora bera. 1815'g.
urtean katolikoak 675 paroki ta 925 apaiz zituzten; 1900'g. urtean 1.014 paroki ta
2.310 apaiz ta 1923'gafen asieran 1184 paroki ta 2.736 apaiz. Apaizgaiak bildu ta
azitzeko etxeak ere ugaritu dira. Orain urte bat 41 etxe zituzten filosofia aufeko
gaiak ikasteko ta 42 filosofia ta gañerakoentzat; ayetan 4.793 ikasle, oyetan be-
fiz 1.708 bazebiltzan. Aur txikitxoak zaitzeko 703 ikastetxe dituzte 71.889 aurtxo-
akin; lenengo mañako ikastetxeak 1.597 dira ta 293.509 ume oyetan dabilzanak;
bigafen mañakoak 33 ta ikasleak 8.121.

Azkenean orain dala gutxi katolikoak Nimega'n Ikastetxe Nagusi (universi-
dad) beña iriki dute 150 ikaslekin. Protestantien ondoan gutxi badira ere, argi
ikusten da zein bikañak diran Holanda'ko katolikoak.

¡Suak indafik ez!

Eukaristi-Batzara Amsterdam'en izango da. Uri au aukeratu dutenak, gogo-
an zeukaten noski 1345'g. urteko gertaera miragaria, Uri ontan gaxo zegoen gi-
zon bati Jauna eraman zioten, baño aon artu orduko, bota egin zuen Hostia
santua, ezer artu etzezakelako. Sutara bota zuten Hostia santua, baño suak
etizion ezertxo egin. Geroago Hostia au zegoen eliza suak artu ta auts biurtu
zuen; Hostia santua gordeta zeukan kutxatxo gelditu zan bakar bakafik; suak
etizuen bere jaunaren kontra indafik izan.

Antziñako oitura.

Urtero gogoratzen dute katolikoak gertaera au. Eun miña biltzen dira gutxi-
enez gauaz ta antziñako katolikoak ibiltzen ziran kaletan ibiltzen dira, baño ez
ayen eran, ayen kantu, otoitz, lore, argi ta beste edergafiakin, ez; ango lege
protestanteak ori dana eragozten die; ala ere katoliko zintzo oyek, antziñako
oitura eder ori ez galtze-afen, urtero bildu ta urtero ixilik kaleak ibiltzen dituzte,
egun obeak etofi bitartean.

Batzañari begira.

Aspaldi ontan Holanda'ko katolikoak Batzañerako bear dan guztia gertutzen ari dira, Jaunari laguntza eskatzeaz azitu gabe. Bazkintzak edo juntak egiñak daude; bat elizkizunak gertutzeko, bestea Amsterdam'en bilduko diranentzat etxeak biñatzeko, bestea Batzañ-befiak zabaltzeko, bestea biltoki erosoak biñatzeko ta bestea Batzañeko eresi edo kantuak gertuko dituana.

Batzañ-egunak.

Astearte afatsaldean, Uztailaren 22'an elduko da Aita Santuaren Ordezkoa.

Asteazken afatsaldean irikiko da Batzaña.

Ostegun eta ostiralean guztien batzañ edo biñerak.

Larunbatan auf gütien Jaunartzea Amsterdam'go Jolas-zelaian.

Igandean Aita Santuaren Ordezkoaren meza nagusia jolas-zelai bertan.

Batzañera dijoazenak, danak toki batean biltzeko erosorik izango ez dala-koan, bi tokitan bilduko dira, luzeran 104 metro ditun Willibrordo deunaren elizan ta uriak konziertoak emateko daukan areto edo saloian.

Azkenengo egunerako

Eukaristi-Batzañ au prozesio edera egiñaz itxi nai luteke katolikoak, baño Holanda'ko legeak ez dute baimenik ematen. Zer egin? Ara zer gogoratu zaien. Katoliko guziak bilduko dira ta kale batzuk ibiliko dituzte, gotzai, kardenalak ta Aita Santuaren Ordezkoa atzetik dituztela zalbufdi edefetan (carrozas). Gotzaie-nak bi, kardenalena lau ta Aita Santuaren Ordezkoarenak sei zaldi izango ditu. Onela joango dira jolas-zelaira ta an egingo da Jaunarekin prozesioa. Katolikoak jolas-zelai au bi egunetarako artuko dute 50.000 florin ordainduaz. Holandaf aberats batek bere jauregia utziko dio Aita Santuaren Ordezkoari Batzañ-egunetarako.

Joango diranak,

Joatekoak omen dira Mercier Kardenala, Malinas'ko Arzobispa, Schulte, Colonia'ko Arzobispa, Dubois, Paris'ko Arzobispa ta Dougherty, Chicago'ko Arzobispa. Onek ekafiko omen ditu berekin miña bat katoliko itxas-ontzi bere-xian. Canada'tik ere oso asko etofi omen dira.

Batzañeko idazkariaren (secretario) zuzentza au da: Spinhuissteeg 4, Amsterdam: zabalkunde edo propaganda'ko bazkintzarena (comite): Jacob Marisstraat 14, Amsterdam.

Tolosaf B. O. M. Cap.

